



Usurbilgo Udala

**USURBILGO UDALAK HIRI HONDAKINAK ATEZ-ATE GAIKAKO BILKETAREN ONDORIOZ  
JASOTZEN DUEN PAPER-KARTOIAREN SALMENTA – KONTRATUA  
PROZEDURA IREKI BIDEZ ESLEITZEKO  
ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN PLEGUA**

**I.- KONTRATUAREN EDUKIA**

**1. KONTRATUAREN HELBURUA.**

Plegu honetan oinarrituta egingo den kontratuaren helburua **“Usurbilgo Udalak hiri hondakinak atez-ate gaikako bilketaren ondorioz jasotzen duen paper-kartoiaren salmenta-kontratua”** egitea da.

Hori guztia espedientean ageri den dokumentazio tekniko eta administratiboaren arabera egin behar da eta kontratuzko izaera izango du.

**2. EXEKUZIO EPEA.**

Kontratuaren iraupen epea **2 urtekoa** izango da. Bi aldeak ados egonez gero, espresuki adierazita eta udalak formalki hartu beharreko erabakia hartuta, kontratua **beste urte betez** luzatu ahal izango da bi aldeen adostasunez. Nolanahi ere, iraupena, guztira, **3 urtetakoa** izango da, gehienez, luzapenak barne.

Alderen batek luzapenari uko egin nahi izanez gero, beste aldeari adierazi beharko dio 3 hilabete lehenago.

Kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik hasiko da kontratuaren epealdia kontatzen.

Epe hori edo, hala badagokio, luzapena bukatu ondoren, kontratua automatikoki bukatuko da.

**3. LIZITAZIO PREZIOA ETA KONTRATUAREN AURREKONTUA.**

Arestian aipatutako gaikako bilketetatik ateratzen den paper-kartoa erosteko, eskaintzaileek “entregatutako tonako eurotan” eskaintzarik hoberena aurkeztu beharko dute. Hori materiala saltzeagatik Usurbilgo Udalak jaso behar duen prezioa izango da.

Prezioa eta aldaketa ASPAPEL Espainian berreskuratutako paperaren prezioei buruzko estatistikaren hileko prezioari erreparatu ostean zehaztuko dira.

Eskaintzaileek prezioa eskaini beharko dute atez-ate bilketa-zerbitzutik datorren materialerako (1.04.01 kalitatea, paper-kartoa).



Usurbilgo Udala

Eskaini beharreko gutxieneko prezioa (BEZ-ik gabe):  
85 €/tn gutxieneko prezioa.

Kontratu hau indarrean jarri eta hurrengo hilabetean fakturatutako prezioa, ore, paper eta kartoi fabrikatzaileen Espainiako Elkarteak (Aspapel) hilero argitaratzen duen EN 643:2014 Arauaren 1.04.01 kalitaterako prezioaren aldakuntza (+- €/tn) aplikatuz kalkulatu da.

Dena den, aldakuntza negatiboa izanez gero eta aldakuntza negatibo hori esleipendunak eskainitako prezioan aplikatuz 85 euro/tonako prezioaren azpitik geratzea eraginez gero, esleipendunak beti ere gutxienez 85 euro/tonako prezioa ordainduko dio Udalari.

Aurrekontua SPKLTBk 88. artikuluan xedatutakoarekin bat kalkulatu da, estimazio hauekin:

- Urte bateko tona kopuru estimazioa: 356,54.
- Kontratuaren iraupen osorako tona estimazioa: 1.069,61.

3/2011 Errege Dekretu Legegileak, azaroaren 14koak, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bateratua onartzen duenak (aurrerantzean SPKLTB), 88. artikuluan aurrez ikusten duenerako, kontratuaren urte bateko gutxi gora beherako balio estimatua (gutxieneko prezioetik abiatuta) 28.523'20 euro dira. Kontratuaren iraupen osorako (luzapena barne) gutxi gorabeherako balio estimatua (gutxieneko prezioetik abiatuta) 85.568'80 €-koa da, BEZ salbuetsita.

Prezio berrikuspena: Ez dagokio prezio berrikuspenik.

#### **4. ORDAINTZEKO MODUA.**

Kontratistak Usurbilgo Udalari kontratuaren prezioa 6 hilabetean behin ordainduko dio, aurreko 6 hilabeteko epeari dagokion kitapena jakinarazi ostean.

Administrazioak jaso behar duen zenbatekoa zehazteko, une bakoitzean kontratistak eskainitako prezio unitarioak eta sortutako hilabetean kontratistaren instalazioetan entregatu diren materialaren kopuruak biderkatuko dira.

Ezegokiengatik, hezetasunarengatik edo zerikusia duten beste alderdi batzuegatik deskontuak ez dira onartuko. Eskaintzaileek bilketa-mota bakoitzetik entregatzen diren batez besteko kalitateen esperientzian eta ezagutzetan oinarrituta eta beste faktore batzuk (zonako plubiometria, etab.) kontuan hartuta, kasuistika horiei erreparatuko diete eta lizitazio-prezioan integratuko dituzte.

Aipatu zenbatekoak epean ordaintzen ez badira, SPKLTBk xedatutako moduan, kontratistak Udalaren alde berandutze-interesak ordaindu beharko ditu eta, era berean, zigorrak jarri ahal izango zaizkio eta kontratua ebatz daiteke.

#### **5. BERMEAK.**

Kontratuaren esleipendunak, bere gain hartu dituen betebeharrak beteko dituela bermatzeko,



Usurbilgo Udala

kontratuaren zenbatekoaren % **5ko behin betiko bermea** jarri beharko du derrigorrean (BEZa salbu).

Berme-epea **HILABETE BATEKOA** izango da, kontratua amaitzen denetik.

Berme hori emateko **epea 10 lanegunekoa** izango da, kontratua esleitu dela jakinarazi den egunaren biharamunetik hasita. Usurbilgo Udalaren bulegoetan emango da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuaren 96. artikuluan ezarritako edozer bitartekotan.

Bermearen itzulketa, hala osoa nola partziala, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuaren (SPKLTB) 102. artikuluan aurreikusitako moduan egingo da; eta RGLCAP 65.2 eta 3. artikuluetan eta esleipendunak kontratuko betebeharrak guztiak bete dituenean.

## **6. PROZEDURA ETA ESLEITZEKO MODUA.**

Kontratu hau esleitzeko modua: **prozedura irekia eta izapidetze arrunta.**

Esleipena egiterakoan, honako irizpide objektibo hauek hartuko dira oinarritzat (gehienez 100 puntu):

### 1.- PROPOSAMEN EKONOMIKOA (gehienez 90 puntu) B gutun-azala

Eskaini beharreko gutxieneko prezioa (BEZ-ik gabe): Paper-kartoi 1.04.01 mota. 85 €/Tn.

Lizitatzailleak prezio hau hobetu dezake. Kontratu hau indarrean jarri eta hurrengo hilabetean fakturaturako prezioa, ore, paper eta kartoi fabrikatzaileen Espainiako Elkarrekin (Aspapel) hilero argitaratzen duen EN 643:2014 Arauaren 1.04.01 kalitaterako prezioaren aldakuntza (+- €/tn) aplikatuz kalkulatu da.

Dena den, aldakuntza negatiboa izanez gero eta aldakuntza negatibo hori esleipendunak eskaintako prezioan aplikatuz 85 euro/tonako prezioaren azpitik geratzea eraginez gero, esleipendunak beti ere gutxienez 85 euro/tonako prezioa ordainduko dio Udalari.

Puntuaketak honako formula hauen bidez ezarriko dira:

Proposamen ekonomiko altuenak 90 puntu izango ditu, eta besteei ondorengo proportzionaltasun formula aplikatuko zaie:

**Balorazioa= (Proposamen ekonomikoa prezio tonako/Proposamen ekonomiko altuena) x 90**

### 2.- PAPER-KARTOIA UZTEKO BILTEGIAREN KOKAGUNEA (gehienez 10 puntu): B gutun-azala

10 puntu izango ditu gehienez Usurbilgo udalerritik bere instalazioak gertuen dituen enpresak.



Usurbilgo Udala

Usurbilgo Udala erdigunetzat harturik (Joxe Martin Sagardia plaza, z/g), errepide nagusitik enpresako instalazioetara dagoen joaneko distantzia km-tan neurturik, honela banatuko dira atal honetako puntuak:

**Balorazioa = (instalazioetara distantzia motzena/instalazioen distantzia) x 10**

## 7. KONTRATAZIO MAHAIA.

Kontratazio Mahai Iraunkorreko kide hauek osatuko dute:

1. Xabier Arregi, Alkatea, Mahaiko Lehendakari gisa
2. Irene García Palacios, Arloko Zinegotzia, Bokal gisa
3. Garazi Etxeberria San Miguel, Udal Idazkaria, Bokal gisa
4. Karmele Lizaso Ubera, Udal Kontu-hartzailea, Bokal gisa
5. Ibon Goikoetxea Retegi, Ingurumen teknikaria, Bokal gisa
6. Olatz De Miguel Arnaiz, Kontratazio eta Pertsonal Teknikaria, Mahaiko idazkari gisa

## 8. KONTRATATZEKO GAITASUNA.

Zuzenbidezko eta jarduteko gaitasuna daukaten pertsona fisiko zein juridikoek hartu ahal izango dute parte kontratazio-jardunbide honetan, baldin eta beren kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeke debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena 12. klausulan zehaztutako bitartekoekin egiaztatu eta ebaluatuko da.

Era berean, pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo ahalorde askietsiaren bidez baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Pertsona juridikoen ordezkariak, ordezkari izateko ahalmena dutela frogatu beharko dute agiri bidez. Kontratatzeke gaitasunik eza dakarten arrazoiak ordezkariari ere aplikatuko zaizkie.

Gainera, enpresariak kontratu honen jarduera edo prestazioa egiteko kasuan kasu eskatu daitekeen habilitazio enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

## 9. PROPOSAMENAK AURKEZTEA.

Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin batera doan dokumentazioa ere, honako lekuan, ordutegian eta epean aztertu ahal izango da:

LEKUA: Usurbilgo Udaleko Errejistroa. Joxe Martin Sagardia plaza z.g. Usurbil

ORDUTEGIA: 8etatik 14:30etara

EPEA: lizitazio honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita **15 egun naturaleko epean.**



Usurbilgo Udala

Gainera, eskaintza hau kontratazio-organoaren kontratatzaillearen profilean argitaratuko da honako atari informatiko edo webgunean: [www.usurbil.eus](http://www.usurbil.eus).

Eskaintzak arreta publikorako zehazturiko leku eta ordutegian aurkeztuko dira, lizitazio iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta **15 egun naturaleko epean**, hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Proposamenak posta, telefax edo bitarteko elektronikoko, informatiko edo telematikoen bidez ere aurkeztu ahal izango dira, urriaren 1eko 39/2015 Legeko 16.4 artikuluan xedatutako moduetan.

Proposamenak postaz bidaliz gero, enpresariak bidalketa data frogatu ahal izango du Posta bulegoan, eta kontratazio organoari eskaintzaren igorpena jakinarazi beharko dio telex, fax edo telegrama bidez egun berean, espediente zenbakia, kontratuaren objektuaren izenburu osoa eta lizitatzaillearen izena idatziz jasoz.

Aipaturiko telex, fax edo telegrama jaso izanaren egiaztapena udal Idazkariak luzaturiko dilijentzia bidez egingo da. Lizitazio iragarkian zehazturiko epea amaitu ondoren kontratazio organoak proposamenen bat jasoko balu bi ukanbehar horiek bete gabe ez da proposamen hori onartuko. Edonola ere, epe horretatik 10 egun igarota aipaturiko agiriak ez balira jasoko hau ere ez da onartuko.

Bitarteko elektronikoko, informatiko eta telematikoen erabilerak gainera azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onarturiko Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginak bere hamaseigarren xedapen gehigarrian zehazturiko ukanbeharrak bete beharko ditu.

Lizitatzaille bakoitzak ezin izango du lote bakoitzeko proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Ezin izango du, halaber, aldi baterako enpresa proposamenik aurkeztu banako gisa eskaintzarik aurkeztu duen kasuetan edo aldi baterako enpresa bat baino gehiagotan egonez gero. Arau hauen urraketak berak aurkezturiko eskaintza guztiak ez onartzea eragingo du.

Eskaintza aurkezteak plegu honetako klausulak baldintzarik gabe onartzea dakar.

## 10. ESKAINTZAK AURKEZTEKO MODUA

Lizitazioan parte hartzeko eskaintzak itxitako 2 gutun-azaletan aurkeztuko dira, lizitatzailleak sinaturik eta jakinarazpenetarako helbidea zehaztuz. Halaber, gutun-azalaren izendapena eta honako aipamena jasoko da: **USURBILGO UDALAK HIRI HONDAKINAK ATEZ-ATE GAIKAKO BILKETAREN ONDORIOZ JASOTZEN DUEN PAPER-KARTOIAREN SALMENTA – KONTRATUA LEHIAKETA BIDEZ KONTRATATZEKO PROZEDURAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA.**

Gutun-azalen izendapena honako hau da:

- «A» gutun-azala: Agiri Administratiboak.
- «B» gutun-azala: Eskaintza Ekonomikoa eta modu automatikoan kuantifikatzeko agiriak.

Gutun-azal bakoitzean enpresaren izena eta proposamenaren sinatzailearen izen-abizenak idatziko dira, noren izenean sinatzen duen zehaztuz. Hiru gutun-azalak sinaturik egon behar dute.



Usurbilgo Udala

Gutun-azal bakoitzean sartu beharreko agiriek originalak edo legeztaturikoak izan beharko dute, indarrean dagoen legediarekin bat.

Gutun-azal bakoitzaren barruan hurrengo agiriak eta hauen zerrenda zenbakitua sartuko dira:

### **“A” GUTUN-AZALA** **AGIRI ADMINISTRATIBOAK**

**a) Lizitazailearen Ardurapeko Aitorpena**, Administrazioarekin kontratatzeke legez ezarritako baldintzak betetzearena.

Honako eredu honen arabera aurkeztuko da:

#### **ARDURAPEKO AITORPEN EREDUA**

*Izena:.....Helbidea: ..... NA zk. ...., telefonoa..  
....., Gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasunaren jabe dela, bere izenean (edo .....  
.....ren ordez, helbidea  
..... eta NA edo IFK  
(pertsona fisikoa edo juridikoa izan .....), USURBILGO UDALAK HIRI  
HONDAKINAK ATEZ-ATE GAIKAKO BILKETAREN ONDORIOZ JASOTZEN DUEN PAPER-  
KARTOIAREN SALMENTA – KONTRATUArako Usurbilgo Udalak deitutako prozedura irekia  
ezagutu eta*

#### **BERE ERANTZUNKIZUPEAN HONAKO HAU AITORTZEN DU:**

**LEHENENGO.** *Lizitazaileak Administrazioarekin kontratatzeke legalki eskatzen diren baldintzak betetzen dituela eta esleipendun izatea proposatuko balitz, kontratazio organoaren aurrean dagokion dokumentazioa aurkeztuko lukeela, esleipenaren aurretik, eskatzen diren dokumentuak dituela eta balekoak direla egiaztatzearen, 3/2011 E.D. Legegilearen 146 artikulua dionari jarraiki. Horrela, esleipenaren aurretik, pertsonalitate juridikoa, ordezkari, bere kasuan sailkapena/kaudimena eta Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zorrik ez izateari buruzko dokumentazioa, eta oinarritan eskatzen den beste edozein aurkeztu beharko duela.*

**BIGARRENIK.** *Jakinarazpenak egiteko helbide elektronikoa honako hau dela:.....*

*Eta horrela jasota geratu dadin, honako aitorpen hau sinatzen dut.*

....., 2017ko ..... aren ....(a)

*Izenpea*



Usurbilgo Udala

### **“B” GUTUN-AZALA**

## **ESKAINZA EKONOMIKOA ETA MODU AUTOMATIKOAN KUANTIFIKATZEKO AGIRIAK**

Kartazal honetan sartu beharko dira plegu administratibo eta teknikoetan aipaturiko gainerako agiri eta informazio teknikoa ere.

Honako eredu honen arabera aurkeztuko da:

*Izen-*

*abizenak.....Helbidea .....  
..... Posta kodea ....., NAN zenbakia .....,  
Telefonoa ....., Ordezkararen datuak (ordezkaririk egonez gero): Izen-  
abizenak ..... NAN edo IFK zenbakia (pertsona fisiko edo  
juridikoa denaren arabera), Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaraturiko USURBILGO  
UDALAK HIRI HONDAKINAK ATEZ-ATE GAIKAKO BILKETAREN ONDORIOZ JASOTZEN DUEN  
PAPER-KARTOIAREN SALMENTA – KONTRATUA prozedura ireki bidezko espedientea  
ezaguturik, adierazten dut kontratuaren oinarri den Plegua ezagutzen dudala eta osoki  
onartzen dudala, lizitazioan parte hartuz eta honako eskaintza hau eginez:*

*-Atez ate bilduko den “sailkatu gabeko paper-kartoa”rentzat, 1.04.01 kalitatekoa izango denarentzat : ..... €/tn BEZik gabe.*

*Kontratu hau indarrean jarri eta hurrengo hilabetean fakturatutako prezioa, ore, paper eta kartoi fabrikatzaileen Espainiako Elkarteak (Aspapel) hilero argitaratzen duen EN 643:2014 Arauaren 1.04.01 kalitaterako prezioaren aldakuntza (+- €/tn) aplikatuz kalkulatu da, beti ere gutxieneko prezioa esleipendunak eskainitakoa izango delarik.*

*- Biltegiaren kokagunearen helbidea:.....*

*....., 2017ko ..... aren ....(a)*

*Izenpea*

## **11. AGIRIAK KALIFIKATZEA**

Kontratazio Mahaia osatuko da eta “A” gutun-azala ireki eta bertan jasoriko agiri administratiboak kalifikatuko ditu.

Beharrezkoa izanez gero, Mahaiak gehienez ere hiru eguneko epea emango du lizitatzailerak aurkezturiko agiritan ikusi diren akats edo hutsegiteak zuzendu ahal izateko.



Usurbilgo Udala

Ondoren, judizio balore baten arabera irizpideak jasotzen dituen "B" gutun-azalak ireki eta aztertuko ditu. Proposamen horien irakurketaren ondoren, Mahaiak behar beste txosten tekniko eskatu ahal izango ditu, Pleguetan ezarritako irizpideen eta ponderazioen arabera balorapena egin ahal izateko.

Bere kasuan, berriz ere Kontratazio Mahaia bildurik, Kontratazio Mahaiak ekonomikoki onuragarriena aurkeztu duen lizitatzaileraren proposatuko du.

## 12. AGIRIEN ESKAERA

Kontratazio-organuak ekonomikoki onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailerari eskatuko dio errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 10 egun balioduneko epean aurkeztu ditzan Sektore Publikoko Legearen Testu Bategineko 146.1 artikulua zehazten dituen aurretiazko ukanbeharrak betetzen dituela ziurtatzen dituen agiriak (orijinalak edo kopia konpultsatuak) eta dagokion behin-betiko bermea ezarri izana.

### a) Enpresaburuaren nortasun juridikoa egiaztatzen duten agiriak:

- Nortasun Agiri Nazionala, lizitatzaileraren izenean jardunez gero.
- Beste pertsona edo entitate bat ordezkatzuz jardunez gero, Nortasun Agiri Nazionala eta ahalordetze eskritura.
- Lizitatzaileraren pertsona juridiko bat denean, eraketaren edo aldaketaren eskritura, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatua, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, aplikagarri zaion merkataritza legediaren arabera inskribatuta egon behar badu. Inskribatuta egon behar ez badu, jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, eraketa eskritura edo agiria, estatutuak edo fundazio egintza aurkeztu beharko da. Agiri horietan jardueraren arauak agertu beharko dute, beharrezkoa bada dagokion erregistro ofizialean inskribatuta. Europako Batasuneko estatu kideetako enpresaburu ez espainiarrek lanbide edo merkataritza erregistroan inskribatuta daudela egiaztatzen behar dute, dena delako estatuko legediak baldintza hori eskatzen badu.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (JEZ) alta emanda dagoela egiaztatzea, hain zuzen ere, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean. Horretarako alta aurkeztuko da, baldin aurtengo ekitaldiari badagokio, edo JEZen azken ordainagiria gainerako kasuetan. Bi kasuetan erantzukizuneko aitortpena ere aurkeztuko da, adierazteko zerga horren matrikulan ez duela baxarik hartu.
- Hainbat enpresaburuk aldi baterako enpresa elkarte bat eratu eta lizitaziora jotzen badute, taldekide bakoitzak jarduteko gaitasuna eta kaudimena egiaztatzen beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera, eta, halaber, aldi baterako enpresa elkartearen eratzeko konpromisoa ekarriko du, adjudikaziodun suertatuz gero. Era berean, proposamenean adieraziko dute aldi baterako enpresa elkarteko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen, kide guztien kaudimen baldintzak zehaztu eta egiaztatzen.

### b) Erantzukizunpeko berariazko adierazpena, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan aipatzen diren kontratu debekuetako batean ere ez dagoela adierazten





Usurbilgo Udala

duena.

c) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga obligazioak eta gizarte segurantzarekikoak betetzen dituela frogatzen duten agiriak.

d) Kaudimen ekonomikoa eta finantzaketakoa egiaztatzen du(t)en agiria edo agiriak:

- Urteko negozio bolumena kontratuak hartzen duen eremuan, gutxienez urteko 35.000 eurotako (BEZ-ik gabe).

e) Kaudimen teknikoaren edo profesionalaren ziurtagiria. Agiri hauek aurkeztuz:

- Azken 5 urteetan gaikako bilketatik etorrira, kudeaturiko paper eta kartoi hondakinen tona kopurua, eta adieraziko dituzte haien zenbatekoa, destino publikoa edo pribatua, eta horiek gehituko zaizkie horiei buruzko ziurtagiriak. Horietatik paper eta kartoiaren fabrikazioaren industriatik eratorritako hondakinak baztertuko dira. **Azken 5 urteetan paper kartoiaren salmentan gutxienez 400 tonako bolumendun bi kontratu kudeatu** dituztenek ulertuko da kaudimena dutela.

- LER izenekoako hondakin ez arriskutsuen kudeatzailearen baimena.

f) Atzerriko enpresek, kontratuan zuzenean edo zeharka sortzen diren gorabehera guztietarako, mota guztietako auzitegi eta epaitegi espainiarren eskumenei men egingo dietela dioen aitortpena aurkeztu beharko dute, eta, behar izanez gero, lizitatzailari dagokion atzerriko eskumen foruari uko egingo dietela adieraziko dute.

g) Kontratua gauzatzekoan pertsonari edota instalazioari eragin daitekeen edozer kalte, heriotza barne, **300.000 €-ko** kopuruarekin estaltzen duen erantzukizun zibileko aseguru poliza eta ordainketa ziurtagiria.

h) Bermea.

**Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen eta Kontratisten Erregistroak onartzen dituen otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuak arautzen duen Sailkatutako Enpresen erregistro ofizialean izena emanda dauden lizitatzailerek ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkeztu ahal izango dute, a), b) eta c) ataletan eskatzen diren agirien orde; ziurtagiria erregistroko letratu arduradunak egingo du eta zinepko aitortpena aurkeztu beharko du lizitatzailerek, zirkunstantzia horiek ez dutela inolako aldaketarik izan adieraziz.**

Administrazioarekin kontratatzeko eskaturiko gaitasun eta kaudimen baldintzak ematen direla aintzat hartzeko unea proposamenak aurkezteko epearen amaiera unea izango da.

### 13. KONTRATUEN ESLEIPENA

Eskaturiko agiriak jaso ondoren, kontratazio organuak kontratua esleitu beharko du agiriak jaso ondoren.



Usurbilgo Udala

Esleipena hautagai edo lizitatzaille guztiei jakinaraziko zaie, eta aldi berean, Kontratatzaillearen Profilean argitaratuko da.

Jakinarazpena hartzaileak jaso izana ziurtatzen duten edozein bitartekoren bidez egin ahal izango da. Bereziki, lizitatzaille edo hautagaiek haien proposamenetan zehazturiko helbide elektronikora bidali ahal izango da, Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bategineko 16. xedapen gehigarria, amaierako 3. xedapena eta urriaren 1eko 39/2015eko Administrazio Publikoetako Prozedura Erkidearen Legearen 41. artikulua araberako. Jakinarazpena ukatuzat hartzeko epea 10 EGUN NATURALEKOA izango da, urriaren 1eko 39/2015eko Administrazio Publikoetako Prozedura Erkidearen Legeko 43.2 artikulua araberako.

#### **14. KONTRATUEN FORMALIZAZIOA.**

Kontratuaren formalizazioa administrazio-agiri gisa esleipenaren jakinarazpena jaso eta 15 egun balioduneko epean egingo da eta aipatu agiria nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko.

Hala ere, kontratistak kontratua publikoki aurkezteko eskaera egin dezake eta horri dagozkion gastuak bere kontura izango dira.

#### **15. ALDAERAK EDOTA ALTERNATIBAK.**

Lizitatzailleek proposamen bakarra aurkeztu ahal izango dute, eta ez da proposamen horren aldaerarik edota alternatibarik onartuko.

#### **16. EUSKARA BALDINTZAK.**

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua, besteak beste, Usurbilgo Udalak onartuta dituen hizkuntza irizpideak Udal barruan eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko.

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, 18. artikuluan administrazioetako normalizazio planek jaso beharko dituzten gutxieneko edukiak zehazten ditu eta horien artean ondorengoa agertzen da: "18.d) Kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak; batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagozkion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntz baldintzak berma daitezen."

##### **a) Zerbitzuan erabiliko den hizkuntzari buruz:**

Enpresa esleipendunak, zerbitzua ematerakoan, Udalak bere hizkuntzazko jarduera arautzeko dituen planen arabera jokatu du.



Usurbilgo Udala

### **Enpresaren eta Udalaren arteko harreman hizkuntzari buruz:**

Enpresa esleipendunaren eta Udalaren arteko ahozko —bilerak, kontsultak...— nahiz idatzizko harremanak —fakturak, txostenak...— euskaraz izango dira.

### **b) Hizkuntza baldintzen jarraipenari eta ez betetzeari buruz:**

Kontratazioa sustatu duen udal lan-sailaren arduradunak jarraipena egingo du zerbitzu hau emateko eskatu diren hizkuntza baldintzak betetzen direla egiaztatzeko

## **17. KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK**

Kontratatik, besteak beste, ondorengo baldintzak bete beharko ditu. Ez baditu betetzen, kontratu hau ebatzi liteke:

- Kontratua indarrean sartzen den unetik, ECOEMBALAJES ESPAÑA, S.A.k behar bezala onartu behar du esleipenduna, Euskal Autonomia Erkidegoak eta ECOEMBALAJES ESPAÑA, S.A.k sustatutako sistema integratuak sinatu duten hitzarmen esparruaren barruko baldintzen arabera.
- Kontratu hau kontratistaren arrisku eta zorira gauzatuko da.
- Materialak, fakturatzeko oinarri izango direnak, Udalak onartutako baskulan pisatuko dira. Gainera, baskulak kalibratze ziurtatu eta legeztatua izango du. Udalak, arrazoituz, baskula alda dadin eskatzeko eskubidea du.
- Udalak eskatzen dizkion gaien berri emango du eta eskatzen zaionean bileretan parte hartu beharko du.
- Zerbitzua kontratuan, orrian eta legeria aplikagarrian xedatutako moduan eskainiko du.
- Udalak berariaz baimendu ezean, esleipendunak ezingo dizkio kontratuaren eskubideak eta betebeharrak beste pertsona edo erakunderen bati laga edo eskualdatu.

Halaber, aurretik Udalak espresuki baimendu ezean, esleipendunak ezingo dio lanen zati bat hirugarren bati azpikontratatu.

- Entregatutako paper eta kartoiaren material guztia birziklatzera, hau da, paper-orea lortu eta, ondoren, jatorrizko produktuak edo pareko beste zelulosazko produktu batzuk lortzeko lehengai bezala materiala aprobetxatu edo berrerabiltzera bideratu beharko du.
- Ondoren egiten diren manipulazio-lan guztietan zehar entregatutako materialak izan ditzakeen datuak zorrozki isilpean mantenduko ditu eta hala egiten dela ziurtatuko du. Ildo horri eutsiz, zuhertasunez jardungo du, Datuak Babesteari buruzko Legeriak xedatutakoaren babesean.
- Deskargatutako materialean ager daitezkeen objektu baliotsuak Udalari jakinaraziko dizkio eta bere eskura jarriko ditu.



Usurbilgo Udala

- Zerbitzua betetzeko langileei dagokienez, zerga-obligazioak, Gizarte Segurantzari buruzkoak eta aurreikuspen nahiz lanean segurtasunarekiko betebeharrak eguneratuak izango ditu.
- Behar bezala eskaintzeko une oro zerbitzuaren esku langile guztiak jarriko ditu eta absentziak, bajak, etab. bete ere bai.
- Erantzukizun zibila **300.000 €** eurotan aseguratua izango du, lehiaketaren xede den jardueraren ondorioz hirugarren pertsoneri edo ondasunei sortutako kalteengatik kalte-ordainen arriskua eta asaldatutako ingurunearen konpontze- eta berreskuratze-kostuak estaltzeko. Polizak argi eta garbi zehaztu beharko du zenbateko hori kontratuaren xede diren instalazioetarako gordeko dela.

#### **Lana eta lan-arriskuak prebenitzea**

Kontratatistak lanaren, gizarte-segurantzaren eta lanean segurtasun nahiz higiearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete beharko ditu. Ildo horri jarraiki, ez betetzeagatik Udalarik erantzukizunez salbuetsiko zaio.

#### **Baimenak lortzea**

Erakunde kontratatari dagokio prestazioa emateko behar diren baimenak lortzea, ingurumenaren eremuan dauden horiek guztiak barne.

### **18. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE.**

Kontratatistaren ardura da hornidura-eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 214. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

### **19. KONTRATISTARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK.**

Esleipendunak kontratua gauzatzeko epea eta Administrazioak jarritako epe partzialak bete beharko ditu. Aipatutako epe horietakoren bat amaitzean, kontratista berandutzan sartu bada berari egoztekoak diren arrazoiengatik, Administrazioak erabaki dezake kontratua amaitutzat ematea edo SPKLTB aurreikusitako zigorrak jartzea.

Berandutze zigoren zenbatekoa fakturretatik eta, behar den kasuan, bermetik kenduko da, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrek 99. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Zigor horiek ezartzeak eta ordaintzeak ez du eragozten kontratatistaren berandutzeak eragindako kalte eta galerengatik Administrazioak kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izatea.



Usurbilgo Udala

Atzerapena kontratistari egozterik ez dagoen arrazoiengatik gertatu bada, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 213 artikuluan xedatu bezala jokatu da.

Nolanahi ere, kontratista berandutza egoeran dagoela aitortzeko ez da beharrezkoa izango Administrazioak alde aurreko eskaera edo errekerimendua egitea.

## **20. KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK.**

- Lehengai bezala erabiltzeko paper eta kartoiaren jabetza lortzea.
- Kontratua ohiz garatzeko Udalaren lankidetzaz izatea.

## **21. ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK.**

Administrazioari ondoko prerrogatibak dagozkie: kontratua interpretatzea, kontratua betetzeak sor ditzakeen zalantzak argitzea, interes publikoko arrazoiengatik kontratua moldatzea, kontratua bertan behera uztea adostea eta uzte horren ondorioak zehaztea. Hori guztia mugen barruan eta Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen testu bateginean ezarritako baldintzei eta ondorioei lotuta egin beharko da.

## **22. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA.**

Baldintza-agiri honen arabera egin behar den kontratua pribatua izango da, eta horren prestaketa eta esleipenari loturik kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuan ezarritako arauak bete beharko dira (azaroaren 14ko 3/2011 E.D.L.). Horiez gain, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak ezarritako arauak bete beharko dira (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua), eta administrazio publikoen kontratazioan erabili beharreko gainerakoak ere. Gainerakoan ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua, Toki Korporazioetako Ondasunen Erregelamendua eta apirilaren 2ko 7/1985 Toki Araubidearen Oinarriak aplikagarri izango zaizkie.

Administrazio Pleguaren eta espedienteari erantsitako gainerako dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak badaude, pleguan jarritakoak edukiko du nagusitasuna.

Kontratistak kontratuari dagozkion arauak ez ezagutzea ez da zuri bide nahikoa izango arauok ez betetzeko.

Era berean, kontratuaren prestaketa eta esleipenetik sortzen diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira.

Kontratuaren ondorio eta iraungipenetik sortzen diren auziak aldiz jurisdikzio zibilaren menpe egongo dira.